



Financiado / Finantzatuta:



Colaboradores/Laguntzaileak:



## Elizondo hartuko du "Aste digitala zure udalerrian: klik batekin aski da" izeneko proiektua

Azaroaren 21tik 25ra bitartean, Elizondok Cederna Garalur Elkartearen proiektu horretan parte hartuko du. Cederna Garalur Elkartearen IKT Autobusa Nafarroako Mendialdeko 8 herritan izanen da, eta herri bakoitzean egonen den aste horretan herritarrei zabalik egonen da. Honako herri hauetan egonen da: Erronkari, Zubiri, Agoitz, Zangoza, Altsasu, Lekunberri, Bera eta Elizondo.

Irene Gastaminza, proiektu burua, IKT autobusean egonen da, astelehenean, goizeko 9:30etik 11:00etara.

IKT autobusa herritarrei zabalik egonen da astelehenetik ostegunera, 10:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 17:30era. Ostiralean bi tailer egingen dira, eta herritarrek horietarako izena eman ahal izanen dute autobusean bertan astean zehar. Tailerrak honako hauek dira: 'Ziurtagiri digitala eta NA elektronikoa', ostiralean goizeko 10:30ean, eta 'administrazio elektronikoa' eguerdiko 12:00etan.

Proiektu horren helburu nagusia da **teknologia berriak Nafarroako Mendialdeko herritarrei hurbiltzea**, eguneroko bizitzan erabiliz horien onurak jaso ditzaten; hartara, jarrera aktiboa izanen dute informazioaren gizartean.

Nafarroako Mendialdeko herritarrei informazioaren gizarteak eta IKTek ematen dituzten aukerak sustatzea, zabaltzea eta horien berri ematea da gakoa. Bi gai lantzen dira nagusiki: 'Ziurtagiri digitala eta NA elektronikoa' eta 'administrazio elektronikoa (administrazio-e)'.

Izenburuak dioen bezala: '**Aste digitala zure udalerrian**' proiektuarekin gure asmoa da 'IKTBak Nafarroako Mendialdeko herritarren zerbitzura' izeneko programa astero eskualde-buru batera eramatea. Horretarako, Cederna Garalur Elkarteak proiektuaren eskura jarri du **IKT Autobusa, astez aste herritarrentzako informazio-, arreta- eta prestakuntza-gune izanen dena**. Proiektuaren onura jasoko duen publikoa Nafarroako Mendialdeko herritarrak dira.

Proiektua **2011ko irailetik abendura bitartean garatuko da**, 8 udalerritan. Asmoa da **astebetez udalerrri batean IKTak eta horiek herritarrei ematen dizkieten aukerak sustatzeko**, horren inguruko prestakuntza jasotzeko eta zabaltzeko egitasmo osoa lantzea.

**Ekintzak lantzeko asteak eta herriak honako hauek dira:**

- Erronkari: irailaren 19tik 23ra bitartean
- Zubiri: irailaren 26tik 30era bitartean
- Agoitz: urriaren 3tik 7ra bitartean
- Zangoza: urriaren 17tik 21era bitartean
- Altsasu: urriaren 24tik 28ra bitartean
- Lekunberri: azaroaren 7tik 11ra bitartean
- Bera: azaroaren 14tik 18ra bitartean
- **Elizondo: azaroaren 21etik 25era bitartean.**

Berri honi al bait hedapen handiena ematea nahi genuke. Informazio gehiago nahi baduzue, gurekin jar zaitezke harremanetan Cederna Garalur Elkartearen 'Enpresak eta Sustatzaileak' arloaren arduradun Irene Gastaminzaren bitartez 696539810 telefono-zenbakira deituta, edo [igastaminza@cederna.es](mailto:igastaminza@cederna.es) helbidera mezua igorrita.

Cederna Garalur Elkartearen informazio guztien berri jaso dezakezue [www.cederna.es](http://www.cederna.es) web orriaren bidez, twitter-eko @CedernaGaralur profilaren bidez, eta facebook-eko Cederna-Garalur orriaren bidez.

**Antsoainen, 2011ko azaroaren 18an**

Financiado / Finantzatuta:



Colaboradores/Laguntzaileak:

